



Eta Lisabören doinu gordinetan murgildu nintzen

 ANDREA ZUBOZKI
 RAFA RODRIGO PERURENA

Dudarik gabe azken hilabeteetan gehien entzun dudak diskoa izan da Lisabören *Eta Edertasunaren Lorratzetan Biluztu Ginen*. Harreman berezia sortu dut berarekin, nire baitako lainoen uxatzeko erremedio biziki on bezala agertu delako, introspektzio terapia ilun bat, taldearen lan guziak bezala funtsean...

Baina nehoiz ez nintzen izan Irungo banda zuzenean ikusten, beraien isilunetik atera direnetik paradak ez direlako trumilka. Eta aukera aurkeztu zen apirilaren 13an, Iruñeko IndaraClub aretoan. Erran beharra dut baldintza guziak hor zirela Lisabören hardcore-a barnetik bizitzeko: akustika goxoa, musikarien hurbiltasuna eta publikoaren musikarekiko maitasuna.

Seikotea *Nomaden Zirkulu Tematia* kantuekin hasi da, Marshall anplifikadore lerroaren burrunbek eta zinbalen ziztu saminek agindurik. Publikoa eta taldea bata bestearen energiaz elikatu

eta segundo erdi batez areto guzia elektriko bihurtu da. Bi bateria jotzaileen joko xeheak harritu nau, ariketak inposatzen dien zuzentasunak ez diolako botatzen duten energiari deus kentzen. Soinu indartsua ekartzeaz gain, mugimenduen uniformaltasunak bisualki presentzia ikaragarria du.

Ahots eta gitarra lanetan ari diren Txap eta Javik soinu homogenea dute, gordin bezain gizona, distortsioa maisu. Hauek ere sekulako presentzia dakarte, mikrofono zangoak etengabe kulunkatu dira oholtzaren dardaren pean, ene inguruko buruak astindu diren bezainbat, Martxel Mariskalen hitzak oihukatu ondoan. Publiko fidela dela sendi da, musikarien plazererako.

Bi bateria, bi ahots, bi gitarra... eta bi baxuk osatzen dute Lisabö. Borjak baxu bat eta Squier VI bat, sei sokako baxu eta gitarraren arteko tresna, uztartzen ditu. Bi baxuek frekuentzia apal anitz ekar-

tzen diote soinu orokorrari, zinbalen eta ahotsen zorrozatasuna leunduz eta gure bular kaiolak astinduz.

Disko berriko kantu franko zuzenean aurkezteaz gain, lan zaharragoe-tako riff pisuez baliatzeko aukera ere eskaini digute, besteak beste *Ezlekuak* diskoa ohoratuz. Baina niretzako kontzertuko klimaxa *Oinazearen Intimitatea* izan da. Bi bateriek goia jo dute, gitarren akorde disonanteek tentsioa zintzilik atxikiz, dena bota arte. Publikoak lagundurik, "animalia lotsatuen lokatz-putzuetan" errepikatu dute bi kantariak, kaos hutsa lortu arte.

Lehen esperientzia hau ez dut uste azkena izango denik, Usopop festibalean ikusteko parada izanen delako maiatzaren 25ean. Bidehutsen bideak ez dira hain hutsak, Lisabö eta Joseba Irazokiren lanen ondotik ALBA eta Jupiter Jon taldeen diskoak plazaratuko dituzte ondoko hilabeteetan. Adi... ●